

TABAKALERA



2022-2023

H E Z K U N T Z A
P R O G R A M A

Aur- kibi- dea

04 TALDEENTZAKO LANTEGIAK

05 # ARTE PRAKTIKA GARAIKIDEAK

- 06 _ ERAKUSKETARA ATERA.
Erakusketak-arte garaikidea △ ◆
- 06 _ KARAOKE. *Soinu-arte* △ ◆
- 07 _ SOKA SALTOAN. *Performancea* △ ◆
- 07 _ SITU-AKZIOAK. *Esperimentaziorako paisaiak* ● △

08 # ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

- 08 _ JARRI BELARRIA. *Entzumena* ●
- 08 _ AHO BIZI. *Soinu edizioa* △ ◆
- 08 _ BERDE KROMATUA. *Ikus-entzunezko erreminak* △
- 09 _ BIDEOGILEAK. *Zinema sorkuntza* ◆
- 09 _ MUGI, GELDI, MOVIE. *Animazioa* △ ◆
- 09 _ KLIK! #selfie. *Argazkigintza* ◆
- 09 _ ARTE-GALERIA DIGITALA. *Sare sozialak eta ikus-entzunezko sorkuntza* ◆
- 09 _ ZINEMARAAAA. *Zinema-aretoa ireki da* ◆

II # SORKUNTZA-LABORATEGIAK

- II _ KOLORETAKO ITZALAK. *Argia eta gorputza* ● △
- II _ HARRI, ORRI, AR!. *Autoedizioa* △ ◆
- 12 _ IRUDI TWO. *Estanpazioa* △
- 12 _ TIN.TA!. *Serigrafia* △ ◆
- 12 _ ISPILU-IRUDIAK. *Kontakizun kolektiboak* ◆
- 12 _ RObat, bi, hiru. *Robotika* △
- 13 _ PLASTIK FANTASTIK. *Birziklapena* △
- 13 _ GAME ON. *Bideo-jokoak* ◆
- 13 _ KONEKTATZEN. *Elektrizitatea, elektronika eta programazioa* ◆
- 13 _ T-SORTU. *Diseinu grafikoa* ◆

I4 DEIALDIAK

- I4 _ PRAKTIKASTIKA
- I5 _ IKASGELATIK MEDIALABERA.
Eskolekin proiektuak

I6 ESKOLA: HEZITZAILEENTZAKO ESTRATEGIA ETA BALIABIDEAK

- I7 _ IRAKASLEENTZAKO PROGRAMA
- I8 _ MALETA IBILTARIAK

Sarrera

Eta, ikasturte berri hau festa bat balitz?

Ilusioa, aukera, freskotasuna, topaketa zein hasiera berriak piztu eta konektatuko dituen festa bat.

Elkar (berriz) aurkitzeko eta errekonozitzeko festa bat; elkarren beharra baitugu izateko, ikasteko, noranzko bat elkarrekin eraikitzeko. Gure jaiari forma emateko.

Hezkuntza eta ikaskuntza bezalakoa den festa bat; irekia eta kontrola ezina, inorena eta aldi berean denona dena.

Egunerokoa eta txikia denak daukan gaitasun subertsiboa ospatuko duen festa bat.

Distiraz jantzia dator, bada, hezkuntza komunitatearekin orotariko ikaskuntzak abiatzeko prestatu ditugun eskaintzak jasotzen dituen liburuxka hau.

Hafla diogu, arabieraz, festa honetan beste oihartzun musikal batzuekin dantza eta deiarar egin nahi dugulako, ileak harrotuta.

Festa diogu, harrera eta eraldaketa espazio bezala, beste gorputz, mugimendu, lengoai, erreferentzia, itxaropen, desio eta ezagutzekin elkartzeko leku bezala. Horrenbeste maite dugun Marina Garcések dioen

moduan, hezkuntza harrera-praktika bat da. Elkarri lagun egiten diotenen harrera-gaitasun horretan oinarritua dagoen egite bat, inor kanpoan ez uzteko elkarrekin borrokatzen duena. Festa diogu, bizigarriak diren testuinguruaren etengabeko eraikuntza bezala, non poztasuna dabilen eta izateko aukerak ugaritzen diren.

Aldarrikatzen ditugu, beraz, festa arraroak, ustekabekoak, deserosoak; erritmo amankomun batera iristeko gure kodeak 'berrabiaraztea' eskatzen digutenak, norbere lekutik mugiarazten gaituztenak. Elkar heltzeko, eusteko, ukitzeko - *pogo* kolektibora gure zerbait ekarriz.

Testuinguru garaikide ziurgabe hauetan, are eta gehiago igo nahi diogu bolumena besteengana gerturatzeko beharri; estimu handian daukagun Yera Morenok iazko Erro(re)tik mintegian zioen moduan, gertutasunetik egiteari, elkarrekin. Orain eta hemen, hori ere etorkizuna baita. Eta elkarrengana gerturatzeari gertatzen den desplazamendu hori baita bilatu nahi duguna, erakunde kultural bezala ere: gugandik ateratzea, barrukanpo hori pitzatzea.

Ikasturte berri hau festa bat izan dadin nahi dugu. Besteekin eta elkarrentzat.

Taldeentzako lantegiak

Talde-lantegietan elkarrekin egon eta elkarrengandik ikasteko espazioak sortu ohi ditugu, kolektiboki bizitzeko esperientziak aktibatuz. Edozein ikaskuntza, harremanen espazio eta denbora horretan gertatzen baita.

Horretarako, orotariko abiapuntuak topatuko dituzue jarraian: izan ekintza zehatz bat aurrera eramatea, egiteko modu berri bat ezagutzea, edota arte-ekoizpen garaikide batera gerturatzeko moduak elkarrekin esploratzea.

Izan ere, esperimentazioan oinarrituta egiten dugu lan, ezagutza eta egoteko modu berriak probatuz. Ezaguna ez zaigun zerbait taldean esperimentatzeak gure lekutik mugiarazten gaituelako. Ezustekorako, jolaserako, akatserako eta galdera berrietarako aukera emanez, batetik. Baita norberarengana zein ondokoarengana beste leku batetik

gerturatzea ahalbidetuz, bestetik; erlazionalak diren ikaskuntza eta bizi espazio komunak eraikitzen jarraitzeko. Elkarbizitz(e)aren festa.

2022/23 ikasturterako lantegien proposamena hiru bloketan antolatatu dugu: arte praktika garaikideak, zinema eta ikus-entzunezkoak, eta sorkuntza laborategiak. Tabakalerako lan-ildo eta baliabideak kontutan izanik antolatutako blokeak dira hauek, eta horietan hainbat erreferente garaikideren, tekniken eta tresnen inguruko ikaskuntza esperientziak topatuko dituzue.

Arte praktika garaikideak

Aurten ere hezkuntza- eta arte-praktika garaikideak gurutzatzen jarraituko dugu, ikasturtean zehar Tabakalera nongo diren erakusketa eta instalazio artistikoen bidez.

Lantegi hauen helburua ez da erakusketetako edukiak 'itzultzea'. Aldiz, normalean urrun dagoen eta arrotza egiten zaigun arte-erakusketa eremuan egoteko eta harekin harremantzeko modu berriak entseatu nahi ditugu; aldebakarreko esanahi eta interpretazioetatik urrunduz, eta haiei gure ahotsak eta gorputzak gehituz. Arteak gure ingurura begiratzeko gaitasun kritikoa areagotu dezakeela sinesten dugu, pentsamendu dibergentea landuz eta munduan egoteko modu ezberdinak gerturaturaz. Gure buruarekiko zein besteekiko harremana birpentsatzeko aukera ematen duen dispositibo moduan erabiliko ditugu artelanak eta artistak. Datorren ikasturteko erakusketak eta instalazio artistikoak hainbat gaik eta kontzeptuk zeharkatzen dituzte, besteak beste arraza eta kolonialismoa, ideia eta irudien debekua, gorputzen kontrola... baita horren aurrean egoteko eta posionatzeko moduak ere.

Era berean, formatu artistiko garaikideak ere erabiliko ditugu gorputzetik, entzutetik eta esatetik elkarrekin egiteko.

Datak:

2022/23 ikasturtea

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:00-18:00

Pertsona kopurua:

25 pertsonako taldeak

Izen-ematea:

hezkuntza@tabakalera.eus
(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

2 0 2 2 / 2 3
E R A K U S K E T A K

Vive le cinema!

Lau zinegile garaikidek bere zine-praktika erakusketa bateko instalazio formatura eramateko gonbitari erantzun diote.

Lan hauetan, begiratzeko, entzuteko eta esperimentatzeko modu berriek funtsezko papera dute.

Datak:

2022ko uztailaren 8tik 2023ko -
urtarrilaren 8ra arte

Gerundi circular

Claudia Pagèsen instalazio panoramikoa, hiriaren zirrikitu logistikoen testigu egiten gaituena.

Datak:

2022ko irailaren 13tik 2023ko -
urtarrilaren 15era arte

Hamairu

Eremuak programatik antolatutako erakusketa kolektiboa, herri txikietan sorkuntza garaikidearekiko sentiberatasuna bultzatzera eta artearen inguruko lan- eta gogoeta-prozesuak ikusaraztera bideratutako Harriak ekimenean parte hartu duten artisten lanez osatua.

Datak:

2022ko urriaren 14tik 2022ko -
abenduaren 18ra arte

Eye Evil

Optikaren eta balistikaren istorio paraleloa aztergai duen erakusketa kolektiboa; arraza eta generoaz erabat zeharkatua, eta egungo dronean bat egiten duena.

Datak:

2023ko urtarrilaren 28tik 2023ko -
ekainaren 4ra arte

That time

Bilboko Arte Ederretako Museoko lanak egongo dira ikusgai Tabakaleran, bi erakundeek elkarlanean antolatutako erakusketa honetan.

Datak:

2023ko uztaila - urria

2 0 2 2 / 2 3

S C A L A

Tabakalerako eraikineko eskailera nagusian kokatzen den instalazio bat da, musikara eta soinura hurbiltzeko dauden hamaika hizkuntza eta modu ikertzeko xedez sortua. Lan ildo honekin harremana duten hainbat artisten lanak egongo dira Scalan, datorren ikasturtean ere.

● HH | △ LH | ◆ DBH, BATXILERGOA, HELDUAK

∅ Lantegi hau saio bakarrean edo bertsiotzat hartu daiteke (2 saio) egin daiteke.

ERAKUSKETARA ATERA

ERAKUSKETA ETA ARTE GARAIKIDEAREKIN
LOTUTAKO LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min ∅

Erakusketak jakintzak gurutzatzeko sistema dinamikoa eta iragazkor gisa ulertzen ditugu. Baina ez da beti berehalakoa izaten bertan erakusgai dauden jakintzen eta gurean arteko solas edo dantza.

Solas edo dantza horrek harremana izan dezake bertan erakusgai dagoenari nola begiratzen diogun, arte garaikidera nondik gerturatzen garen. Lantegi honetan denen artean erakusketaren edukietara hurbilpen bat egiteaz gain, erakusketak bisitatzeko bestelako moduak esperimentatuko ditugu. Zer gertatuko litzateke aretora atzera begira sartuko bagina? Eta etzanda ikusiko bagenitu? Edo oinutsik, begiak erdi itxita...

Arte garaikidera sartzeko ohiko moduak astindu nahi ditugu, horietatik *irten*; artearen ideia zabaltzeko, erakusketa zure presentziarekin aztoratzeko.

KARAOKE

SOINU-ARTE LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min ∅

Karaokea etimologikoki *ka* eta *oke* hitz japoniarren batura da; *ka*-k hutsa esan nahi du eta *oke* orkestra hitzaren laburdura da. Horrek esan nahi du orkestrak "hutsa" jotzen duela, hau da, kantaririk gabe. Karaokea erabiltzen duenak, beraz, bere kantua laguntzeko erabili ahal izango du.

*Scala*rekin harremana duen lantegia da. Tabakalerako eskailera nagusian kokatzen den instalazioa da Scala, eta musikara eta soinura hurbiltzeko dauden hamaika hizkuntza eta modu ikertzeko xedez sortu da.

Bilaketa horretan murgiltzeko, mikroa piztu eta bozgoragailuen bolumena igoko dugu, “hutsa” *-ka-* soinuz beteko duen orkestra *-oke-* ondo entzun dadin. Guk osatuko dugu orkestra, gure gorputzen durundi eta barneko (a)hotsekin. Entzuteari denbora, xuxurlari bolumena, soinuei esanahia eta hitzari ahotsa emango dion karaokea egingo dugu.

SOKA-SALTOAN

PERFORMANCE LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min ø

Sokara salto egiteak modu erritmiko, ordenatu eta soinudunean errepikatzen dugun ekintza batean parte hartzea dakar, banaka edo taldean. Lehiaketarik gabeko jokoa da, inork irabazten ez eta galtzen ere ez duena. Espazioa (ikastolako patioa, kalea) okupatzeko modu bat ere bada. Sarritan, aspaldiko garai batzuetatik oinordetzan hartutako abestien konpasak errezitatuz jolasten duguna, haien letrei erreparatu gabe.

Guzti horregatik, nor garen eta zer pentsatzen dugun esateko estrategia bihur daiteke sokara salto egitea, zer gustatzen zaigun eta zer ez, zer iruditzen zaigun ondo eta zer ez. Gure hitzekin. Geure kantuekin. Gorputzetik, hizkuntzatik eta mugimendutik egindako ariketa bat. Ekintza performatibo bat.

Elkarrekin salto egingo dugu?

SITU-AKZIOAK

ESPERIMENTAZIORAKO PAISAIA-LABORATEGIAK

● △ | 45min-ko saiokak

Proiektu honek esplorazio sentsorialerako jolas irekiak diseinatzea planteatzen du. Edizio bakoitzean, guztion artean (txiki zein nagusi) Tabakalerako espazio bat eraldatzen dugu - txikien eta txikienentzat pentsatu eta sortutako jolas librea gauzatzeko proposamenak bideratuz.

Esperimentaziorako paisaia hau proiektuan interesa duten familiekin batera urrian hasiko dugun prozesu partehartzaile baten bidez pentsatu, diseinatu eta sortuko dugu. Era berean, ikasturtean zehar ildo honi lotutako lantegiak bideratuko ditugu, elkarrekin sortu, jolastu eta ikasi ahal izateko.

(Lantegi hau apirila eta ekaina bitartean egingo da).

I.2_

Zinema eta ikus-entzunezkoak

Duela gutxira arte, film bat ikustearen esperientzia kolektiboa zen, besteekin partekatutako espazio eta denbora bat. Gaur egun, ikus-entzunezkoen espazio eta denborak guztiz atomizatuta dauden arren, gure buruaren zein munduaren ikuskera alternatiboak ezagutu eta eraikitzeko ere erabil ditzakegun tresnak eskaintzen dizkigute. Ikusle izateaz gain, gero eta ekoizleago ere baikara gure egunerokotasunean.

Ikusle zein ekoizle izaera horretan eragiteko ikuskera alternatiboak esploratzea proposatzen dugu, baita narratiba hegemonikoei eraikitako kontakizunak pitzatzea, hemen eskaintzen diren lantegi, baliabide eta esperientzien bidez. Ikusi eta entzutea, besteekin eta elkarrentzat.

Datak:

2022/23 ikasturtea

Orduetgia:

Asteartetik ostiralera, 10:15-14:00

Pertsona kopurua:

15 pertsonako taldeak

Izen-ematea:

hezkontza@tabakalera.eus
(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste orduetgi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

● HH | △ LH | ◆ DBH, BATXILERGOA, HELDUAK

∅ Lantegi hau saio bakarrean edo bertsiot hedatuan (2 saio) egin daitezke.

JARRI BELARRIA

ENTZUMEN LANTEGIA

● | 1h30min

Entzumena giza gorputzeko organo oso sentikorra eta aurreratua da. HHko ikasleei zuzendutako lantegi honetan entzulearen rolean jarriko gara, entzumena funtzio motriz eta sentsorialak, intentsitate eta bolumenaren pertzepzioa garatzeko esperientzia bizitzeko.

AHO BIZI

SOINU EKOIZPEN LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min

Imajinatu film bat ikustean pantaila beltzera joaten dela. Ulertuko al zenuke soinuaren bitartez bakarrik? Entzumena bidez emozioak eta tentsioak hauteman daitezke baina entzule batek mezulari bat behar du. Mutean geratu diren mugimenduzko irudiei esanahi berri bat emango diegu lantegi honetan, ahots bikoizketa eta Folley teknikaren bitartez.

BERDE KROMATUA

IKUS-ENTZUNEZKO ERREMINTAK

△ | 1h30min

Lantegi honetan kroma pantaila berdearen magian murgilduko gara. Kromak ematen dizkigun aukera guztiez baliatuko gara bertan gure bideoklip, pasarte edo albistegia sortzeko. Ba al zatoz Medialabek duen platoa erabiltzera?

BIDEGILEAK

ZINEMA SORKUNTZA

◆ | 2h

Ikus-entzunezko pieza labur bat ekoiztean elementu teknikoak ezagutzen dira, gaitasun analitikoak garatzen da, eta alfabetizazio bisualaren konpetenziak lantzen dira. Lantegi honetan zinema-sorkuntza prozesuaren hainbat fase ezagutuko ditugu: gidoi bat sortu, ondoren hemen ditugun kamerekin grabatu eta edizio lanarekin amaitu. Animatzen al zarete ikus-entzunezko ekoizpen baten prozesua ezagutzera? Eta munduaren begirada apurtzaile bat planteatzen duen ikus-entzunezko sortzera?

MUGI, GELDI, MOVIE

ANIMAZIO LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min

“Stop motion” ikus-entzunezko teknika, irudiak mugimenduan sortzeko animazio-barietate zaharrenetako bat da. Lantegi honetan teknika tradizional hartan sakontzen da, eta sortzeko aukerak arakutzen dira. Edozein materialek balio du istorioak sortzeko: gure gorputzek, plastilinak, Lego-ak, objektuek, marrazkiek edo argazkiek, besteak beste.

KLIK! #selfie

ARGAZKIGINTZA LANTEGIA

◆ | 1h30min

Argi dago argazki baten esanahia aukeratutako helburuaren arabera izan daitekeela. Horregatik, irudiarekiko jarrera kritikoa norberaren askatasuna eraikitzeke ezinbesteko tresnetako bat da, sareetan gure burua aurkezteko erabiltzen ditugunean eta irudiz inguratuta gaudenean. Lantegi hau irudien esanahiaren, autoerrepresentazioaren (Selfia) eta irudi ekoizpenaren inguruan hausnarketa kritikoa lantzeko aukera da.

ARTE-GALERIA DIGITALA

SARE SOZIALAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA

◆ | 1h30min

Gaur egun, sare sozialak gure artean harremanak sortzeko baino zerbait gehiagorako erabil ditzakegu. Sormena bukaezina da: Instagramek dituen tresnak baliatzen ikasten badugu, sareetan gure buruaren bestelako iruditeria bat munduratzea lortuko dugu. Arte digitalak bere lekua badauka, hori bultzatzea besterik ez zaigu geratzen.

Gonbidatua: Laura Ré (Lantegi hau urria eta abendua bitartean egingo da).

ZINEMARAAAA: ZINEMA-ARETOA IREKI DA

◆ | 2h

Tabakalerako zinema-aretoa irekiko da Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-talde eta elkarteei zine saioak eskaintzeko. Ikasturtean zehar hiru film proposatuko ditugu.

Zinemaraaaa Tabakalerako hezkuntza-eta zinema- arloek elkarlanean garatzen duten programa da. Izan ere, filmek egunerokoan presente ditugun bizipen, egoera, eztabaida eta gaiak irudikatzeko gaitasuna dutela uste dugu. Aukera ematen digute elkarrizketa eta prozesuak abiatuz, inguratzen gaituzten gaiekiko begirada kritikoa eraikitzeko. Zinemaraaaan aukeratutako filmek baliabide hezitzailea izateko asmoa dute, eta ikus-entzunezkoaren formari ere arreta eskaintzen diote.

Hiru ildok osatzen dute:

Filmen aukeraketa(^{*}): Zine saioetan proiektatuko diren filmak horretarako interesa duten irakasle eta hezitzaile talde batekin erabakiko dira. Aurreko ikasturteetako aukeraketa irakasle talde batekin, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleekin eta Tabakalerako zinema arloarekin batera burututako prozesuaren emaitza izan da. Hau abiapuntu bezala hartuta, ikasturte honetan proposamenen zerrenda aberastu eta proiektzioen aukeraketa berrituko da.

Norentzat:

Interesa duten irakasle eta hezitzaileak.

Noiz:

Urria, azaroa eta abendua bitartean.

Zine saioak: Tabakalerako zinema-aretoan hiru film proiektatuko dira Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-taldeentzat zein elkarreentzat, ondorengo datetan:

Abenduak 15-16:

Bertako zinegile garaikideen film-labur sorta.

Martxoak 23-24:

Tódalas mulleres que coñezo

Ekainak 1-2:

Interesa duen irakasle eta hezitzaile talde batekin aukeratuko da urria, azaroa eta abenduan zehar. (^{*})

Gida pedagogikoak: Zine saioetan proiektatzen ditugun filmak abiapuntu bezala hartuta, gida-pedagogikoak sortzen ari gara. *Tódalas mulleres que coñezo* filmaren gida sortu genuen 2021-2022 ikasturtean; ikasturte honetan, berriz, 2023ko ekainean proiektatuko dugun filmaren gida prestatuko dugu. Filmak osatzen dituzten elementuak deslotuko ditugu (eduki mailakoak, zinemagintzarekin lotutakoak, praktikoagoak,...) hezitzaileei tresna gisa erabili eta beraien prozesu propioak abiatzeko aukerak zabalduz.

I.3_

Sorkuntza-laborategiak

Tabakalerako lan-filosofiaren oinarrian dago kultura ulertzea esperimentazio-eta sorkuntza-laborategi gisa; bertan, ezinbesteko dira “egizu zuk zeuk” edo “egizu besteekin” leloak, besteak beste. Sorkuntza-laborategiek kodea bere zentzurik zabalenean irekitzea proposatzen dute, teknologia azaleratzea, gauzek nola eta zergatik funtzionatzen duten ulertzen saiatzeko. Teknika, zientziarekin lotutako trebetasunak eta objektuak ez ezik, gorputzen, hizkuntzaren edo birtualtasunaren arteko erlazioa ere bada. Hacker etikarekin bat eginez, jarduera hauetan Tabakaleraren baliabide eta lan-filosofiara hurbiltzea proposatzen dugu; kulturara *egitetik* gerturatzeko. Ezagutza praktikoak erdigunean jarri nahi dira, egitearen kulturak jakintza sortzen duela aldarrikatzeko.

Datak:

2022/23 ikasturtea

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera, 10:15-14:00

Pertsona kopurua:

15 pertsonako taldeak

Izen-ematea:

hezkontza@tabakalera.eus

(Gutxienez bi aste lehenago eman behar da izena. Beste ordutegi eta adinen edo talde handien kasuan, galdetu).

● HH | △ LH | ◆ DBH, BATXILERGOA, HELDUAK

∅ Lantegi hau saio bakarrean edo bertsiotzat hartu (2 saio) egin daiteke.

KOLORETAKO ITZALAK

ARGIA ETA GORPUTZAREKIN
ESPERIMENTATZEKO GUNEA

● △ | 45min

Irudiak sortzeko hainbat modu daude. Marrazki bidez sortu ditzakegu, kartulinak eta beste material batzuk erabiliz... Eta irudi horiek argiarekin sortzen baditugu? Eta itzalarekin? Eta kolore ezberdinetako itzalen bitartez? Argia proiektatzen duten tresnak eta gure gorputzak erabiliz, taldea zein bakarka irudiak sortuko ditugu lantegi honetan.

HARRI, ORRI, AR!

AUTOEDIZIO LANTEGIA

△ ◆ | 1h30min

Autoedizioa pertsona edo kolektibo batek sortutako argitalpena da, eta haren sorkuntza-prozesu osoa kontrolatzen du: edukitik, diseinutik eta produkzio-prozesutik hasita, hedapenera eta salmentara bitartean. Lantegi honetan, edizio artistiko bat sortzen da eta, horretarako, artisten lanak aztertu eta haien esperientziak interpretatzen dira, material, teknika eta Tabakalerako liburutegian eskuragarri dauden edukien erreferentzien bidez. Taldean, hainbat formatu deskubritzen dira, besteak beste argazki-liburua, fanzinea (fan-magazina) edo argitalpen anitza.

IRUDI TWO

ESTANPAZIO LANTEGIA

△ | 1h30min

Irudi bat nahi adina aldiz errepikatzeko aukera ematen duten euskarriak sortuz (Stencil-ak, zigiluak edo grabatuko beste teknika batzuen bidez), paper gaineko estanpazioaren munduan barneratuko gara iruditegi pertsonal bat sortzeko helburuarekin, DIY ikuspegitik - ondoren etxean edota ikasgelan egiteko aukera zabaltzeko.

TIN.TA!

SERIGRAFIA LANTEGIA

◆ | 2h 0

Irudi digitalek gobernatutako errealitate honetan, pantailetatik irten eta gure ideia zein mezuak paperera ekartzea proposatzen dugu. TIN.TA! adierazpen grafikoko lantegi-laborategia da, gure leloak pentsatu, partekatu eta zabaltzeko espazioa. Gure gorputzak aldarrikatzeko, gure ahotsak zabaltzeko eta estetika zein bizitza anitzagoak bilatzeko tokia da.

ISPILU-IRUDIAK

KONTAKIZUN KOLEKTIBOEN LANTEGIA

◆ | 1h30ko 2 SAIO

Lantegi honetan eguneroko irudi pertsonaletatik abiatuko gara kontakizun kolektibo berriak sortzeko. Konbinazio- eta konposizio-jolasen bidez istorio berriak sortuko ditugu, talde gisa irudikatuko gaituztenak eta dauzkagun ohitura, gorputz zein egiteko modu anitzak bilduko dituztenak.

Bigarren saio batean, sortutako irudi-istorio berri horietako aldarri eta mezuak jasotzen dituzten kartelak ekoitziko dira. Lantegia espazio publikoan amaituko da, non kartelak itsatsiko diren performance kolektibo moduan; kalean mezu eta ahotsen arrasto bat utziz, beste begirada batzuekin elkarreragina sortu asmoz.

Lantegi honetarako, parte-hartzaile bakoitzak bere eguneko 5 unetako 5 irudi aurkeztu beharko ditu.

RObat - bi - hiru

ROBOTIKA LANTEGIA

△ | 1h30min

Robotikaren oinarriak ezagutzen hasteko lantegia da hau. Robota eraiki ahal izateko programazioaren hastapenak landuko dira robotarekin jolasean aritzen garen bitartean: eman beharreko urratsak pentsatu, robota programatu eta agindu egokiak eman ez hainbat erronka gainditu beharko ditugu.

PLASTIK FANTASTIK

BIRZIKLAPEN LANTEGIA

△ | 1h30min

Ekologia pil-pilean dagoen gaia den momentuan birziklapenak eta bigarren eskukoak modaren, arkitekturaren edota arte plastikoen esparruak hartu ditu, besteak beste. Kontzientzia ekologikoa elikatu nahi duen lantegia da hau: egunero sortzen ditugun plastiko hondakinekin gaikako bilketa egiten ikasiko dugu, dauden plastiko ezberdinak ezagutuz eta bereiziz. Birziklapenetik imajina ezin ditzakegun objektuak sortu daitezke, eta hori ikusteko aukera izango dugu.

GAME ON

BIDEO-JOKOAK SORTZEKO LANTEGIA

◆ | 1h30min

Bideo-jokoen ekoizpenean murgiltzeko pentsatuta dagoen aukera honetan kontua ez da soilik teknologiaren erabilerari eta eduki jakin batzuei buruzko gaitasunak ikastea; aitzitik, jokia negoziazioarekin, erabakiak hartzarekin, komunikazioarekin eta hausnarketarekin lotutako gaitasunak lantzen eta ahalbidetzen dituen narrazio edo kontakizun bat da. Beti gustatu izan zaizu jokatzea, baina, inoiz pentsatu duzu zure bideo-jokoa sortu zenezakeela?

KONEKTATZEN

ELEKTRIZITATEA, ELEKTRONIKA ETA PROGRAMAZIOA

◆ | 1h30min

Lantegi honetan elektrizitatea, elektronika eta programazioaren oinarriko kontzeptuak barneratuko ditugu, sentsore baten eraikuntzatik abiatuta. Horretarako, besteak beste, Arduino edo Scratch bezalako *hardware* eta *software* plataforma askeak erabiliko ditugu. Ekimen honen helburua aire-edo soinu-sentsoreen aukerak aztertu eta haiek probatzen hastea da, eskola eta bere ingurunean haiek erabiltzeko egokitasuna kontutan izanik.

T-SORTU

MARRAZKETA DIGITALA ETA DISEINU GRAFIKOA

◆ | 3h

Ordenagailu bidezko diseinuan murgilduko gaituen hastapen lantegia da, marrazketa digitalaren eta diseinu grafikoaren arteko mugak jorratuko dituen. Marrazkiak, logotipoak, lelo edo sloganak baliatuko ditugu eta haiek modu digitalean sortu. Ondoren euskarri fisikoetara nola eraman espermentatuko dugu. Horretarako, eskuragarri dauden tresna eta baliabideak ezagutu, aztertu eta praktikan jarriko ditugu; kamisetak, seinaletika, pegatina, sticker eta abar luze bat gure kabuz eta fabrikazio eta inpresio digitaleko tresnen bidez egingo ditugu.

Deialdiak

Lantegi ezberdinek eskaintzen diguten unean uneko harremanetik haratago, ibilbide luzeagoa duten prozesuak garatzeko dugun interesa ase nahi dute deialdiek. Araututako hezkuntzatik kanpo geratzen garen eragilea izanda, hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan aritzeak elkarrengandik ikasteko aukerak irekitzen dituela uste dugu. Ikasturtean zehar luzatzen diren prozesu hauek aukera ematen dute eragile ezberdinen arteko harremanean sakondu, elkarrekin bide berriak esploratu eta hausnarketa bateraturako espazioak sortzeko.

Ikasturte honetan deialdi bat *pause*-an jarriko dugu, eta aldiz berri bati ongietorria eman.

2.1_

Praktikastika

PRAKTIKASTIKA lankidetzaren proposamen bat da, Tabakalerako Hezkuntza Sailak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batek eskola-eremuan artea beste modu batzuetara jorrazteko aukera emango duen proiektu bat egin dezaten epe luzera.

Lankidetzako-lan horren helburua da arte-sorkuntza proiektu bat garatea ikasturtean zehar, Plastikako, Ikusizko- eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza irakasgaiaren barruan. Ikaskuntza-prozesu horretan, Tabakalerako lan-espazioekin eta 2de0 Tabakalerako euskarazko ikus-entzunezkoen laborategiko espazioekin lotura duten gazte artista sortzaileen laguntza izango dugu.

Hortaz, hautatutako ikastetxearen eta Tabakalerako Hezkuntza Sailaren eta zdeoren arteko ikaskuntza-prozesu esperimentalak da. Prozesu horrek, ikasturtean zehar, irakasgai horren garapena, edukiak eta egiteko moduak elkarrekin birpentsatzea proposatzen du.

2022-23 ikasturtean zehar egingo da deialdi berri honen lehen froga pilotua. Prozesuan parte hartuko duen ikastetxea:

- Salesianos Donostia Ikastetxea

Irakasleen eta Medialabeko lantaldearen artean diseinatutako dugu proiektua, curriculumeko gai bat eta Medialabean lan-esparruak diren artea eta pentsamendu garaiakidea uztartuz, guztien arteko zeharkakotasuna ere landuko dugu.

Aurkeztutako proiektu-proposamenek ondoko hiru esparruetatik bati erantzun behar diote: bideogintza, jolas ekoizpena edo soinua eta teknologia.

2022-23 ikasturtean zehar elkarrekin lan egiteko aukeratutako ikastetxeak honako hauek dira:

- Antoniano Ikastetxea (Zarautz)
- Katalin Erauso Ikastetxea (Donostia)

2022-23 ikasturterako deialdia itxita dagoen arren, deialdiaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi baduzu medialab@tabakalera.eus helbidera idatz ezazu.

2.2_

Ikasgelatik Medialabera. Eskolekin proiektuak

Irakasgai bat modu berritzailean landu nahi zenukete? Eskola proiektu baterako ideia daukazue baina ez duzue baliabide egoki edo ezagutzatekniko zehatzik? Praktika eta esperientziazioa ohiko prozesu batean txertatu nahiko zenituzkete? Klasetik atera eta espazio inspiragarri batean lan egin nahi duzue Medialabeko lantaldearekin elkarlanean?

Deialdi honen helburua eskola esparrutik irten eta Tabakalerako Medialabean, bertako taldearekin batera, egitasmoa hat gauzatzea da; eta, era berean, zerbitzu desberdin hat eta eskaintzen dituen aukera guztiak erabili eta esperientziaz gozatzea.

Eskola: Hezitzai-entzako estrategiak eta baliabideak

Tabakalerako hezkuntza arloan praktikatik hausnarketara eta pentsamendutik egitera salto egiten dugu lan filosofia moduan. Ez ditugu bi eremuak banatu nahi, bata bestearengandik elikatzen delako. Diskurtsoak gure praktika ezin duelako jan, eta alderantziz, hezkuntza-praktikari buruz hitz egin eta ikaspenak kolektibizatzea oso garrantzitsua delako.

Eskola hezkuntzako ikerketara zabalik dagoen gune bat da: hezkuntzako profesionalentzat eta interesa duten beste pertsonentzat (irakasleak, hezitzaileak, ikertzaileak, artistak...) pentsamendu-programak eta baliabideak eskaintzea, testuinguruko eta nazioko sareetan lankidetzan

aritzea (Oinherri bezalakoetan, edota estatuko beste erakunde batzuekin jardunaldietan edo harremanetan parte hartzea) etab.

Atal honetan, ikerketa eta hartu-eman gune honi lotutako bi esperientzia edo programa bildu ditugu.

3.1_

Irakasleentzako programa

Hainbat urte daramatzagu irakasleekin harreman hurbila garatzen, eta harreman hori etengabe elkar elikatzen doa. Funtsezkoa da beste hezkuntza-esparru batzuetan lan egiten duten taldeekin trukean aritzea, hizkuntza komuna sortzeko, batzuen eta besteen beharrianak hautemateko eta hezkuntzaren arloko esperientziak partekatzeko. Garrantzitsua da eskolak eta kultura-erakundeak elkar topatzea eta bata bestea bestela aurkituko ez lukeen hezkuntza-jarduerez ukitzea.

Bizi dugun oneak planteatzen dizkigun erronkei elkarrekin aurre egitea proposatzen diegu irakasleei aurten ere, erronka horiek munduarekin dugun harremanari eragiten baitiote; baita, jakina, ikasleagoak eta haren inguruneak daukanari ere. Hitzordu hauetan irakasleak eta hezitzaileak bilduko gara, bai eta praktika artistikoen eta sorkuntza digitalaren eremuko profesionalak ere, esparru horietatik hezkuntza-tresna bihurtuko ditugun estrategiak eskuratzeko.

Lantegi-topaketa hauek larunbata goizez izango dira.

Datak:

Urriak 1

Eskolarako tresnak. Arduino. Medialab. ♦

Azaroak 19

Metaversoan barneratzen.

Gonbidatua: Martin Etxauri ♦

Urtarrilak 28

Eskolarako tresnak. Ikus-entzunezkoak.

Medialab. ♦

Otsailak 18

Artista egoiliarrekin saioa-lantegia. ♦

Martxoak 18

Zinema errekurtsio bezala.

Gonbidatua: Xiana Do Teixeira ♦

Maiatzak 6

Situ-akzioak. Esperimentazio

sentsorialerako paisaiak. ● △

● HH | △ LH | ♦ DBH, BATXILERGOA, HELDUAK

Maleta ibiltariak

Medialab Tabakalerak eskuragarri duen bilduma ezagutzeko eta honek aldizka proposatzen dituen interesguneetan sakontzeko, hainbat edukiz osatutako gaikako hiru aukeraketa sorta prestatu ditugu. Eskaintzen dizkizuegun baliabide nomada hauek euskarri anitzez (liburu, film, fanzine, mahai-joko, musika, bideo-joko, etab.) hornituta daude eta “maleta ibiltarien” forman bidaiatuko dute, eskolan eta taldean erabili ahal izateko. Sei astez hartu ahal izango dira maileguan maletak berriz ere bueltan gurerara itzuli aurretik.

Hurrenez hurren, hiru maleta ibiltari hauen leloak hauek dira:

Kolore anitzetako betaurrekoak.

Genero, arraza, sexualitate, abilezia, funtzionaltasun... askotarikoak ditugula ezagutu eta guztiak balioan jartzea du helburu sorta honek. Inklusibitatea eta bizikidetzari buruz hausnartzeko maleta.

Bizi-leku / Jolas-leku.

Egunero okupatzen ditugun eremuek gure bizitokia osatzen dute eta, noski, gure arteko harreman eta eginbideen eszenatokia dira. Hauek kudeatzen ikasiz harremanak zaintzen ere ikasiko dugu. Hiri zein landa espazioen erabilerak lantzeko maleta.

Robota des(egin).

Makinak eta artefaktuak sortzeko, lehendabizi barruan daukatena ulertu behar dugu, baita erabiltzen dituzten logikak. Logika horiek ezagutzean,

gainera, zalantza eta jakin-min aberasgarriak sortuko zaizkigu. Kultura digitala, teknologia, maker eta DIY filosofiak jorratzen dituen maleta.

Sorta bakoitzak biltzen dituen edukiak adin-tarte eta maila ezberdinetako ikasle zein irakasleentzako daude pentsatuak, edozein talderen beharrak asebetetzeko asmoz sortuak.

Proposatutakoez gain, Medialaben bildumako beste edozein eduki ere eskatu eta mailegatu daiteke, noski.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kontaktua:
hezkuntza@tabakalera.eus
943 118 855

tabakalera.eus

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEAK

hezkuntza@tabakalera.eus
Tabakalerako informazio puntua
T. +34 943 118 855

ERAIKINA

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 21:00

Ostiralak: 9:00 - 22:00

Larunbatak: 10:00 - 22:00

Igande eta jaiegunak: 10:00 - 21:00

Andre Zigarrogileak plaza 1,
20012. Donostia/San Sebastián
www.tabakalera.eus

